

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko uztailaren 5a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Tapia eta Leturia, Blackwater eta Lagarto Amarillo ariko dira aurtengo Elkarguneak jaialdian • **3**


Xanti Uterga • «Kantxan arriskatzen dut» • **7**

Emaus,

30 urtez

birziklatzen

Nafarroako Emausko Trapuketariak elkartea 30. urteurrena ospatzen ari da egunotan. Hogeita hamar urte eman dituzte gure traste zaharrak eta zaborra biltzen, eta, ahal den neurrian, birziklatzen. Era askotako gauzak birziklatzen dituzte: papera eta kartoia, beira, altzariak, etxeko tresnak, jostailuak... Jasotzen dutenaren %88 birziklatzen dute. Arazoak dituzten pertsonen zentzatzeta tasa ere handia dute.



• GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Iruñea • 'Iruña' galdu du Pamplonak



2001eko urtarrilean, Administrazioan euskaren erabilera arautzen duen foru dekretua garatzeko plana aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak. Funtsean, plan horrek xede zuen euskara eremu mistoko biztanleen begien aitzinetik kentzea. Konparazio batera, planaren testuak argi eta garbi erraten zuen errepideetako bide seinale elebidunak «beherala» aldatu behar zituztela. Gobernuak, baina, «berehala» horretan atzera egin zuen sorturiko iskanbila ikusita. Ordutik, gutika gutika garatu dute plan horrek zioena eta euskara seinaleetatik desagertarazten ari dira.

Lan horretan, Iruñeko Udala ikasle aurreratua izan da eta jarri dituen kartel guziak gaztelaniaz jarri ditu bakarrik. Halako kartelak paratzeko erabakien kontrako helegiteak aurkeztu dituzte herritarrek, eta aldeko epaiak lagun, kartelak aldatu behar izan dituzte. Iruñeko Udala, hala ere, temoso dabil eta seinale elebakarrak jartzen segitzen du. Oraingoan, sanferminetarako kanpotar anitz etorriko delako, hiriko sarreretan *Pamplona* dioten seinale handiak jarri ditu. *Pamplona*ren ondoren ez da betiko *Iruña* agertzen. Bidailaguna galdu du Pamplonak.

Bera •

Asteburu honetan zabalduko dute igerilekua egokitzapen lanak amaitu ostean

Asteburu honetan zabalduko dute, antza denez, Berako igerilekua, eraikina egungo araudira egokitzeko egin behar izan dituzten lanak bukatu ondoren. Igerilekuak ekainaren erdialdera zabaltzen ohi zituen atea urtero, baina aurtentzen ezinezkoa izan da, obrak zirela eta. Joan den irailean egin zuen obrak esleitzeko lehen deialdia Berako Udalak baina ez zen enpresik agertu, eta, ondorioz, igerilekuak moldatzeko eta egokitzeko proze-

su guztia atzeratu egin da. Azkenean, maiatza aldera hasi ziren lanak eta hasiera batean uste zena baino beranduago amaitu dira. Ondorioz, hondartzara edo inguruko herrietako igerilekuetara joan behar izan dute herritarrek bienbitartean.

Berako Udalak aspalditik bazekien igerilekua araudira egokitzeko lanak egin behar zituela, ura kloratzeko eta filtratzeko sistemari, batez ere. Nafarroako Gobernuak lan

horiek diruz laguntzeko epea 1995. urtean amaitu zen baina Udalak ez zuen laguntza hori jasotzeko eskaintzarik egin. Azken urteotan moldaketa txikiak eginez lortu du igerilekuak atea zabaltzea baina aurtentzen ireki ahal izateko derrigorrez egin behar izan ditu legeak agintzen dituen moldaketak Udalak. Beraz, asteburu honetatik aurrera igerilekuko atea zabalik izango dituzte.

→ **Eduarne Elizondo**

Bidasoa

Errekako amuarrainak aztertuko dituzte

Bidasoa ibaiko amuarrainak aztertuko dituzte datozen urteotan, Nafarroako Gobernuak horretarako baimena eman baitu. 373.000 euro inguruko aurrekontua onartu du ikerketa egin ahal izateko, 2005. urtea bitarte. Ikerketaren lehen atala neguan jarriko da abian, amuarrainen errunaldiaren garaian. Jaiotzen diren arrainkumeen kopurua kontrolatzea da helburua, eta, aldi berean, bizirik haietako zenbatek irauten duten aztertzea. Horretarako, arrantza denboraldian inkestak eginen dituzte arrantzaleen artean. Azken urteotan egindako ikerketek erakutsi dute Bidasoako amuarrainen egoera ez dela oso ona. Oraingo azterketaren xedea emaitza zehatzagoak lortzea eta egoera horren zergatiak jakitea da.

Valtierra

Troglodita proiektua

Turismorako egokitu dituzten sei leize inauguratu zituzten atzo Valtierraako La Parada ingurunean. Troglodita Proiektuaren zioei segituz, leize hauek landa turismorako egokitu dituzte Leader II Europako proiektuaren laguntzaz.

Valtierrean, duela 40 urte arte etxebizitza bezala erabili zituzten 400 leizetik goiti daude. 1999an Udalak erabaki zuen La Parada ingurunean proiektu berritzailea egitea eta horietako sei leize landa turismorako egokitzea. Honela bada, 75 metro koadroko leize hauetako bakoitzean bina logela daude, egongela, sukaldea eta bainugela. Argia eta ura ere badute, jakina.

Leizeen lehengoratzetan ia 800.000 euro gastatu dituzte; Valtierraako Udalak, Nafarroako Gobernuak eta Leader II proiektuak jarri dute diru hori.



ziutatea

ARITZ AGIRRE



Adardun gehiegi, amorante gutxi

Urtero egiten genuen topo ordu eta leku berean. Sanferminetako amoranteak inoiz ez zidan hutsik egiten LAKABEren barrakan, txosnan, berak esaten zuen bezala. Tipula bokata eskatzen zuen, hats arrastoa utziz musu goxo bakoitzean. Nik, berriz, porruz egindako pizza tristea, ahuntza banintz bezala, barazki zale hippyaren itxura emateko. Gau beteko zita zen hura, eta elkarren eskutik abiatzen ginen urtero, poteo lizunean.

Ohiko kataluniar independentista aurkitzen genuen, kontzertu alternatiborako bidean. Bere kanpin mahaia-aren atzean kokatuta beti, milaka pegatina eta bere kamiseta ere saltzeko gogoz, urteroko diskurtso u-topiko astuna belarrira jaurtitzen zigun bitartean. Komun berde

ibiltarian giltzaperatzen ginen amorantea eta biok. Maitasun hitz goxoak pixa itsaso lurrinaren ondoan; derrigorrez, maiteminduta (edo berotuta) egon behar, berori jasateko. Azkenik, noria erraldoian bukatzen genuen gaua, eta goitik begiztatzen nituen lagunak, barraka batetik bestera, tourraren jokoa. Tontoena, maillot horia soinean, etapa guztietan edale azkarrena.

Haatik, oro ez da urrea gure hiri honetan, eta aurtentzen amoranterik gabe geldituko naizela diost Udalak. Ez baitute ulertzen, sanferminetako egitarauaren parte ere badirela barraken ondoko belardian katxi hondakinen artean bueltaka aritzen diren nerabe bikoteak, eskua bestearen arropa azpian galduta. Nork esanen zigun, faltan emango genituela hautsa eta lohiarekin nahastu,

eta ikusezin bilakatzen diren punki txakur zale, flauta joleak?

Sekula ez dut ulertu uztaillaren seian Benidormerako autobusa hartzen duten iruindarrek, bidean ihesi, zergatik ospatzen duten txupinazoa. Gure Yolik bestak haien izat prestatzen dituen sentsazioa daukat, sanferminak urrunetik ospatu eta gertutik bizi ez dituztenentzat. Antistenes filosofoak arrazoiz zuen: "Izenda itzazue, dekretuz, astoak zaldi; alkateak ere halaxe izendatzen dituzue eta". Eta horrela gaur arte.

Amorantearen faltan ere, pozik geundeke inguruko giroa zainduko balute. Bestela, gauzak aldatzen hasita, Fermin deuna elizan utzi, eta abia gaitzen prozesioan Bin Ladenen argazkiarekin.

Lizarra • Elkarguneak

Hainbat herrialdeetako musika taldeek bat egingen dute uztailearen erdialdean egitekoa den Elkarguneak herri musikaren jaialdian. Udako kultur egitarau oparoa hasiko da haiekin batera.

Herri musikaren IV. jaialdia egingo dute San Nicolas plazan uztailearen 16, 17 eta 18an



Tapia eta Leturia eta Blackwater taldeak, Lagarto Amarilloekin batera, 'Elkarguneak' jaialdian ariko dira. •

EGUNKARIA

UZTAILEKO EGUN EPELETAN gau magikoak izango dira Lizarran musikaren aitzakian. San Pedro elizaren dorrearen babesean eta Nafarroako Erregeen Jauregiaren aldamenean, eszenatoki txit polita paratuko dute San Nicolas plazan. Alde Zaharra musika tradizional eta berritzaileen topaleku izanen da, eta jatorri ezberdineko doinuek bat egingen dute, harri zaharren artean oihartzun hun-kigarriak sortzeko.

Tapia eta Leturia abiatuko dute aurtengo *Elkarguneak* herri musikaren jaialdia. Uztailearen 16an ariko dira kantu kantari Joseba Tapia eta Xabier Berasaluze *Leturia* bikotea, asteartearekin. Egun indarrean dagoen trikiti mugimenduaren aitzindari izan dira gurean. Bikoteak bere azken diskoko lanak eskainiko ditu; baina, entzuleen gozagarri, hasi zirenetik (1984) sortu izan dituztenak ere kantatuko dituzte trantpaldo gainean.

Hurrengo gauean, uztailearen 17an alegia, Lagarto Amarillo talde gaztearen emanaldia izanen da San Nicolas plazan. Pozuelo de Alarconeko (Madrid) boskoteak musika

unibertsala egiten du eta, horretarako, munduko hainbat kulturaren herri musikaz baliatu dira. Blues, funky, pop eta reggae musikaren eragina dute haien doinuek eta, halaber, oihartzun afrikar, greziar, arabiar eta zeltak sumatu daitezke haien musikan. Pablo Mora abeslariak hitzak idatzi eta doinuek sortzen ditu, eta, gazte talde baten laguntzarekin, Lagarto Amarillo taldea osatu zuen 1999. urtean.

Azkeneko taldearen emanaldia uztailearen 18an izanen da. Frantziako Blackwater taldea ariko da gau hartan; Lizarrako alde zaharreko karririk doinu iradokitzailez betez. Irlandako musika da talde honen ardatza, baina ez da horretan gelditzen, eta sormenerako duen gaitasua-

naz baliatuz, doinu zaharrak original bihurtzen ditu.

Kultura, euskara eta gazteak

Arestian aipatutako hiru kontzertuak iluntzeko 22:15ean izanen dira, San Nicolas plazan, eta aste horretan bertan Lizarran egingen duten XXIX. Erdi Aroko Ikerketa Astearen egitarau oparoa osatzera datoz. Lizarrako Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria batzordeek antolatzen dute *Elkarguneak* jaialdia. «1998. urtean ekin genion jaialdia antolatzeari eta geroztik izen handiko taldeak pasatu dira guretik. Oso giro polita sortzen da eta jendeak pozik hartzen ditu musika emanaldi hauek», aipatu dio NAFAR-KARIARI Marta Tejado Gazteria batzordeko kudeatzaileak. Ba-

tzorde bakoitzak musika talde bat ekartzeaz arduratzen da, betiere beren eginkizunarekin bat datorren musika sustatu nahian. «Euskara batzordeak euskal talde bat ekartzen du urtez urte. Gu, berriz, gazte talde bat ekartzen saiatzen gara; aurtun Madrilgo Lagarto Amarillo taldeari egokitu zaio etortzea. Denak oso gazteak dira eta, gainera, musika hagitz ona egiten dute», gaineratu du Tejadok.

Elkarguneak jaialdiarekin udako kultur egitarau oparoa hasiko da. Jarraian, Dantza Folklorikoaren Nazioarteko Jaialdia, Antzinako Musika Astea, Sefardi Astea eta bertze hainbat egonen dira Ega ibaiak zeharkatzen duen hirian.

→ Kristina Berasain

Herritarrak kexu dira frontoi berriko eserlekuekin

LIZARRAKO REMONTIVAL FRONTOIA INAUGURATU berri dute eta sortu dira jada herritarren artean lehen kexak. Eserlekuek piztu dute nagusiki zaleen haserrea, hirugarren, laugarren eta bosgarren iladetan esertzen direnek ezin baitute kantxa osoa ikusi, lehen eta bigarren iladetakoa eserlekuak beteta baldin badaude. Hala zeuden joan den larunbatean, Abel Barriola eta Jorge Nagoreren Nafarroako Lau t'erdiko txapelketan.

Arazoa ez da nolana hiko, 200 lagunentzako lekua baitago Lizarrako frontoiko hiru, lau eta bosgarren iladetan. Lizarrako zaleek egoeraren berri eman diote dagoeneko pilotalekua kudeatzen duen Kirolega enpresako kide Javier Arbizuri, eta, hark onartu du zerbait egin beharko dela zale guztiek partidak behar den bezala jarraitu ahal izateko. Haren ustez arazoa sortu duten iladak dauden palkoak ez du aldapa

nahikorik eta, ondorioz, atzean daudenek ezin dute kantxa guztia ikusi.

Frontoia diseinatu zuen arkitekto Victor Mier, ordea, ez da iritzi berekoa, eta pilotalekua egiten ari zirenean ilada guztietatik kantxa ongi ikusiko zela baieztatu zutela azpimarratu du, baina onartu du azken iladetatik kontrakantxa ez dela osoki ikusten. Hala ere, Lizarrako Udalak egokitzen jotzen badu arazoari irtenbidea emateko prest azaldu da. Lizarrako alkate Maria Jose Bozalek ezagutzera eman du egoera aztertuko dutela eta «arazoa larria bada konpontzen ahalegingiduko» direla.

→ Miren Mitxelena



Xabier Larraburu

Elmomentico

Idoloez idatzi behar (omen) nuen, baina Xaxa altzora etorri zait (ro, ro, ro), eta pixka bat laztandu behar izan dut katu erraldoi hau, eta laztan bakoitzarekin burua eta ideiak beste nonbaitera joan dira (beste zeregin batzuetara), eta, ondoren, ordenagailuaren pantailan Elmomentico izenburua irakurri dudanean, pixka bat arrotza egin zait (bat-batean) hitz hori, zeren ni Xaxa laztantzearekin batera, beste nonbaitera joana naiz, eta orain, ez dut katolikoez eta kaleetatik paseatzen dituzten zurezko idoloez deus ere esan nahi.

Ez dut, beraz, Moisesek berak Horeb menditik ekarri zuen bigarren mandatu aipatuko (Deuteronomio 5,7-11): «Ez duzu idolorik egingo, ez eta zeruan, lurtean, uretan edo lurraren sakonean dauden gauzen irudi tailaturik ere. Ez zara beraien aurrean belaunikatuko, eta ez dituzu gurtuko, ni, zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz...». Ez dut aipatuko katolikoek honen orde sexualekiko manamendu berri bat asmatu zutela (hain gogoko baitute idoloen gurtzea!) eta ez naiz Jeremiasen gutuna itzultzen saiatuko (Baruc bere idazkariaren liburuaren atzetik datorrena, Babiloniako erbesteez ari dena, Kristo aurreko bigarren mendean idatzia, hau da: orain dela 2.200 urte), nahiz eta horrelako zer edo zer izango litzatekeen: «Babilonian urrezko, zilarrezko eta zurezko jainkoak ikusiko dituzue, eta nola lepoan hartuak eramaten dituzten... ez itzazue gurtu... (jainko horietaz beti): Batzuek eskue-tah zetroa dute... beraien aurpegiak tenpluaren kearengatik belzuta ageri dira. Beraien gorputz eta buruen gainetik hontza txuri, sorbeltz eta beste txoriek hegan egiten dute; katuek ere salto egiten dute haien gainetik... Urteak izan zirenean ez ziren hortaz jabetzen ere. Dirutzak ordaindu zituzten haien truke, nahiz eta haiengan bizitzaren arrastorik ez izan. Zangorik ez dutenez, bizkar gainean eramaten dituzte... Meloi-sail baten erdian dagoen txorimaloaren antzekoak dira zurezko jainko horiek, urrez eta zilarrez estaliak... iluntasunera botatuko hilotz baten antzekoak dira... urrez eta zilarrez estaliak... zurezko jainko horiek. Ez itzazue gurtu» •

Traste zaharren balioa

Nafarroako Emausko Trapuketariak elkarteak 30. urteurrena ospatu zuen iragan larunbatean

EMAUSKO TRAPUKETARIAK ELKARTEA 1949an sortu zen Frantzian. II. Mundu Gerra bitartean, Abbe Pierre izeneko apaiz batek iheslariei laguntzeko sare bat sortu zuen. Ezaguna egin zen horregatik, eta gerra bukaturikoan, diputatu aukeratu zuten Frantziako legebiltzarrean. Baina Pierrek laster utzi zuen politika mundua, eta jende pobrea hartzeko etxe bat muntatu zuen. Nolabaiteko harrera etxea zen. 1949an, Emaus izena jarri zion.

Harrera etxearen esperientzia hori garatzeko dirua behar zuten, jakina. Baina Pierrek irabazten zuenarekin ez zen nahikoa. Orduan hasi ziren zabortegietara joaten traste zaharrak eta zaborra bildu eta berreskuratzeko. Eta horrela sortu zen Emausko bigarren ezaugarria. Lehenengoa da arazak dituzten pertsonen lan egitea.

Emaus Frantzian sortu eta mundu osora zabaldu zen. Baita Euskal Herrira ere. 1972an talde bat sortu zen Bilbon; eta bi urte geroago, beste bat Iruñean.

Txaboletan bizi zirenei laguntzeko

60 urtetan Portugalgo ijito anitz iritsi zen Iruñerria. Zizur eta Barañain artean eraiki zituzten txabolak. Hori ikusita, Iruñeko talde batek pentsatu zuen zerbitu egin behar zela haien laguntzeko. Jose Palacios, Emilio Arrondo eta Juan Molinat zeuden talde horretan, besteak beste. «Txaboletan bizi ziren familiei laguntzeko dirua behar zen, txaboletatik atera eta gizarteratze etxebizitzetara sartzeko», azaldu du Palacios. «Taldekide batek Emausko esperientzia ezagutu zuen Frantzian, eta hona ekarri zuen auzolandegien sistema. Bilboko taldearekin harremanetan hasi ginen, eta batzorde tiki bat osatu genuen. Oinarrizko talde kristauetako kideak zeuden horretan».

1972ko urte hartan, mugimendu handia



Emausko Trapuketariak Iruñea ondoko Saratsa herrian duten nabearren ateak zabaldu zituzte iragan larunbatean, jendeak ikus zezan zer nolako lana egiten duten hilero egunkariak biltzen dituzten horiek. Nafarroako Emausko Trapuketariak elkarteak 30 urte egin ditu gizarte arazoak dituztenei eta gure traste zaharrei aukera berriak emanez. Urte horietan, eredu sozio-ekonomiko bere-berea izatea lortu dute.

Emilio Galera

NAFARROAKO
EMAUSKO KIDEA



«Emausen daudenak ez dira zerbitzu bateko erabiltzaileak, trapuketariak baizik»

Emausera iritsi aurretik, Berriozarko Lantxotegi elkartearen lan egiten zuen Emilio Galerak gazteekin. Duela zazpi urte Emausen sartu zen, bertako esperientzia "erakargarria" iruditatu baitzitzaien. Orain, Nafarroako Emausko Trapuketariaren koordinazio taldekide da.

■ Zerk erakarri zintuen Emausera etortzeko?

Emausen egiten den gizarteratze lan bereziak erakarri ninduen gehien. Hona datozen pertsonen izaera aldatu egiten da sartu bezain laster. Hona iritsi baino lehen, drogazaleak ziren, alkoholikoak, emakume baktariak, buru gaixoak... Baina hemen sartu, eta trapuketari bilakatzen dira. Emausen daudenak ez dira zerbitzu bateko erabiltzaileak edo onuradunak. Atzean utzi dute beren iragana, eta beste aukera bat ireki zaie. Hurbiltasuna eta errespetua dira Emausko berezitasunak, eta, niretako, hori oso garrantzitsua da.

■ Zein izan dira Emausen lorpenak?

Alde batetik, lortu dugu gizarte arazoak dituzten pertsonentzako alternatiba bat izatea Nafarroan. Beste aldetik, erdietsi dugu errespetua izatea gure ildo nagusia. Hemen gaudenon artean ez dago ezberdintasunik. Den-denak proiektu berean gaudu sartuta, eta den-denak beharrezkoak gara proiektu hau aurrera eramateko.

■ Zuen eredu sozio-ekonomikoa berdintasunaren isla da.

Bai. Sei ordu eta erdiz egiten dugu lan, zortzi orduz egin beharrean. Eta gure soldata 600 eurokoa da, batez beste. Guk erabaki dugu soldata tiki-gaia izatea eta lanordu gutiago egitea, pertsona gehiagok lan egiteko aukera izan dezaten. Zortzi orduz lan egiten bagenu eta soldata normala bagenu, hemen ehun pertsona egon ordez 50 egonen liriateke.

■ Eta nola irau duzue 30 urtez halako ereduarekin gizar-te kapitalista honetan?

Nik uste dut hainbeste urtez irau dugula sedukzio lan handia egin dugulako, barrura zein kanpora begira. Barrukoei beti gogorarazi behar diegu proiektu berezi batean gaudela eta ezin diogula horri uko egin. Adibidez, Saratsako nabea ordaintzeko hiru urtez egon gara gure soldata igo gabe. Jendeak onartu zuen esfortzu hori egin behar zela, eta hala egin zen, jendeak argi baitu hauxe esparru berezi bat dela.

Kanpora begira, sedukzio lan handia egin dugu administrazioarekin, mankomunitate zein Gobernuarekin, gure proiektua errespetatu dezaten. Eta ezin ahaztu gabe utzi, hainbeste urtez irau dugula Nafarroako herriak gure lana aintzat hartu duelako. Oso harrera ona izan dugu gizar-tean. Jendeak zerbait bota behar badu, Emausera deitzen du. Hori lortu izan ez bagenu, Emaus beste gauza bat litzateke.

izan zen Iruñean, traste zaharrak biltzeko kanpainan boluntario askok hartu baitzuten parte. Kamioi andana bete zuten traste zaharrek. «Uste dut hamabi bat auzolandegi eratu genituela», segitu du Palacios. «Iruñeko trasteleku guztiak hustu egin zituzten. Intendentziako kuarterlan zaharretan bildu eta saldu genituen. Lortutako diruarekin gizarteratze etxebizitzak egin zituzten». Pasa den larunbateko jaitxoan, garai hartako bideo bat pantailaratzen ari zirelarik, ikusle batek —umoretsu— aipatu zuen azoka hura El Corte Inglesaren aurrekaria zela. «Lekua bera da bai, baina zio zeharo kontrajarriak dituzte Emausek eta El Corte Inglesek», erantzun zion Emilio Arrondok.

Azokatik komunitatera

Hainbat urtez ibili ziren hasierako funtzionamendu horrekin. Baina, nonbait, hori ez zen nahikoa, laguntzen segitu behar zen.

«Hori uste genuen, behintzat, Arrondok eta biok», dio Palacios. «Komunitatea sortu behar zen jende behartuarekin, inolako erlazio politikoa eta erlijiosorik gabe. Bilboko komunitatean lanean ari zen Jose Mari Garciarengana jo genuen, eta bera arduratu zen hemengo komunitatearen egituraketaz. 1979. urtea zen, eta ordurako bagenuen kamioi bat, eta Padre Calatayud kaleko etxabe batean ireki genuen azoka».

Orduetik, jende asko pasatu da Emaustik. «Mota askotako jendea, gainera: deus ere ez zutenak, deserrituak, familiar arazoak zituztenak, alkoholikoak, zaharrak... Eta orain, etorkinak. Etortzen direnei ez zaie galdetzen nondik datozen, ezta nora doazen ere. Lan egin nahi ote duten galdetzen zaie, besterik ez. Eta lanaren truke, soldata bat eta gutieneko baldintza batzuk ematen zaizkie».

Emausen betiko lan sistema objektu zaharren bilketa eta salerosketak izan da. Eta horregatik da eza-guna, batez ere Iruñean. Palaciosen aburuz, arras sustraiturik dago Emaus hirian. «Oro har, oso ongi ikusi du jendeak gure lana. Akaso jendearen zikinkeriak eramatzen



Joselacios

Iruñeausko
surtzako bat

«Oro har, ongi ikusi du jendeak gure lana. Akaso jendearen zikinkeriak eramatzen duelako edo. Gizar-tean aintzat hartze hori gure arazoaren oinarria da»



ARGAZKIAK: GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



Nafarroako Emausko trapuketariaren datuak



- 1972an sortua.
- Langileak: 111
- Lan-astea: 32,5 ordu
- Batez besteko soldata: 600 euro
- Lan eremuko mankomunitateak:
 - Iruñerria
 - Jurramendi
 - Sakana
 - Bidausi
 - Izarbeibar
 - Aragoi Beitia
 - Baztan-Malerreka-Bortzirriak

- Lokalak:
 - Saratsako berreskuratze eta birziklatze zentroa
 - Azpilagaña, Arrotxapea eta Lizarrako azokak
 - Beltzuntzeko harrera etxea.

- 2001ean...
 - 26.898 aldiz atera ziren zabor eta gauzaki bila.
 - Hainbat 3.076 tona gauzaki hartu zituzten, 2.311 tona paper, 417 tona beira, eta 84 tona ontzi.
 - Hartutakoaren %88 birziklatu zuten.
 - 1,6 milioi euro sartu, eta 1,5 milioi euro atera ziren Fundazioetik.
 - Aurrekontuaren %3,76 kanpoko taldeei laguntzeko bideratu zuten.

→ Asier Azpilikueta



Entzierroak

Beroketak. Unzuko etxeko tresna elektrikoen saileko burua izateak badu abantailarik. Denda guztietan bezala, Unzuko lankideek goiz-arratsalde egiten dute lan. Nik soilik goizez. Bulegari ordutegia daukat. Denda ireki aurretik, administrazio lana egiten dut (eskaerak, bezero handiekin harremanak...), eta gero, eguerdira arte, saltzaile lanak. Hau guztiau kontatzen dut irakurle batek baino gehiagok galdetu diolako gehigarri honetako koordinatzaile **Asier Azpilikueta**ri —jatorra mutila— dendaria izanda nola moldatzen naizen arratsaldero Monte Carlon musean aritu ahal izateko.

Lasterketak. Nolanahi ere, sanferminen atariko estres madarikatuak —guztia uztailaren seia baino lehen amaitu beharra— aste honetan goiz-arratsalde lanean aritzera behartu nau. Asteartean, esaterako, zortziak aldera atera nintzen lanetik. Udaletxe plazan **Yolanda Barcina** *action woman* erregionalistaren aurka protestan ari ziren ehunka lagunekin egin nuen topo aurrez aurre. Polizia andana zuten inguruan. Tentsioa nabaria zen. **Jose Carlos Iribasen** neska-mutikotzarrak une batetik bestera egurra banatzen hasiko zirela zirudielarik, protestalariak saindu beltzarari erreguka hasi zitzaizkion: «A San Fermin pedimos, por ser nuestro patrón...». Hamar puxtarri protestalari irudimentsuontzat. Kantua amaituta, poliziek lanari ekin zioten. *Divi-*



Istilua izan ziren asteartean barraken aldeko manifestazioan.



Yolanda Barcina Iruñeko alkatea.

no ugari zegoen manifestarien artean. Lasterraldi politik ikusteko parada izan zen. Halere, harrapaketarik izan zen, borrakada bat baino gehiago. Azken ohar bat: polizia batek, nire albotik laster batean igaro zelarik, bultza egin zidan. «Barkatu», esan zidan. Barkatu! Zahartu gara, zahartu garenez.

Adarkadak. Ni bezain zaharra bada ere, Gerardo mus bikotekide bikruzifera baino baskoagoak Irrintzi peñako kiderik kementsuenetako bat

izaten segitzen du. Kontuz ibili beharko luke. Egunen batean bihotzekoak joko du. Astearte gauean, Monte Carlon kuba-librea hartzen genuen bitartean, bere onetik aterata ikusi nuen. Urteroko bazkidearen egunaren prestakuntzan buru-belarri aritu da lanean. Beste hainbatetan bezala, aurten ere Mañueta karrikako pilotalekutxoan egingen dute. Azken urteotan ez bezala, baina, Udalak 50 milioi pezetako kalteak betetzeko aseguru eskatu die. «To

entzierroa!», errepikatzen zuen behin eta berriz Gerardok astearte gauean, Monte Carlon kuba-libre bana hartzen genuen bitartean. «Hormak burukadez txikituko ditugula entseaturako dute», gaineratzen zuen. Arratsaldeko protestan ikusitako pankarta etorri zitzaidan gogora: «Barcina, eres fría y calculadora» (Barcina, hotza eta kalkulagailua —kar, kar—zara).



panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

«Ken hadi erditik, jula!»

Seigarren kubata edanik ere, temati segitzen zuen. «Hi, inñen diau, gaur, bai, e? Estafetan, muturbeltzari mukik kenduko izkia». Halako batean, «Estafetara!» oihu egin, eta esprintean joan zen. Adiskideek nekez harrapatu zuten, eta, noizbait ere, harekin ter-ter-ter solas egin ondoren, «Gaurkoan ezin duk. Ez hago ongi. Kriston aitzurra harrapatu duk. Begira, joanen gaituk entzierroa ikustera Deia-ra...» —azkenean, begi gorri distiratsu haietatik txinpartak atera, ezpainenetan irri gaiztoa marraztu, eta adiskideen harridurarako, «nahi duzuen bezala» erran zuen.

Udaltzainen hesia ozta-ozta gainditu, atariko txirrina jo, eta gora igo ziren. Kazetarien etxea zen hura, gaur egun Muthikok duena. Hantxe zeuden Deia, Euskadi Irratia eta Efe agentzia. Irratiaren

solairura iritsita, barneko aldea jendez beterik zegoen, baina leiho ondoan tokia egin zuten, karrika ikusteko modukoa, behintzat. Zortziak bortz minutu gutxitan, Koldori hauxe entzun zioten: «Hi, baniek Efe agentzian lan egiten duen lehengusina agurtzera», atea ireki, eta ospa egin zuen.

Adiskideak zur eta lur gelditu ziren begipean zuten ataritik Koldo atera zenean. Zortziak jo hurren. Estafetan beheiti zihoran, espaloitik, zibiki-zabuka, baina gelditu gabe. Lehen suziariak zanpart egin, eta beherantz segitzen zuen, kontrako norabidean bakarra, noski. Bar Pirineo parean bistatik galdu zuten.

Entzierro arina izan zen, iduriz garbia, miurak izan baitziren. Zitzu bizian, adiskideak karrikaratu eta Mercaderes aldera

OSKAR MONTERO



Zezenak Mercaderes eta Estafeta arteko bihurgunean.

jo zuten, edozein zokotan Koldoren hezur txikitua ikusiko zituztelakoan. Bihurgunera iritsita, han zetzan, bai, Gurutze Gorrikoen ohatilan, ahoz gora, kamiseta zarrastatua zuela. «Lasai, ez dik deus, azaleko urradura buruan, eta alimaleko legatza, hori bai. Gaitzerdi, miurak adarra bularrean sartu ez dionean». Gurutze Go-

rriko mutilaren azalpenak entzun ondoren, Koldok argi utzi zuen onik zegoela: «Edan zagon kubata bat». Baina ez zen deusez oroitzen.

Biharamunean, *Navarra Hoy* egunkariak gure Koldoren argazkia ekarri zuen lehenbiziko orrialdean. Estafetako lehen atariaren parean zegoen, espaloi erdian, bihurgunerantz begira, zezenari bidea eragotzi nahian. Argazki oina hauxe zen: «*Mo-*

zo en extraña posición». Buruz buru, Tenedorcito-ren adarraren punta kamiseta sartua zegoen, eta adardunak kolera aurpegia zuen. Zezenak, dudarik gabe, haserre eman zion: «Ken hadi erditik, jula!». Baina, a ze poza koadrilarena argazki hura ikusita. Azkenean, bazegoen dibinorik koadrilan. Kubata edanda ospatu zuten.

Xanti Uterga

PILOTARIA

«Kantxan arriskatzen dut»

Xanti Utergak debuta eginen du igandean, Uharteko Euskal Jai Berri pilotalekuan. Donezteben sortu zen, duela hamazazpi urte. Familiari zor dio pilotarako zaletasuna. Lau urterekin hasi zen, eskuz, baina Iñaki Lizasorekin erremontearen esparruan murgildu zenetik, hori besterik ez du egin nahi.

● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

LIZASO MAISU ETA KOTETO Ezkurra senitarteko. Horrelako giro batean ez da harritzekoa Xanti Utergak pilotari izan nahi izatea. Sanferminetako torneoan eginen du debuta; San Fermin egunean, hain zuzen ere. Iruñeko jaietan Jokatzeko irrikan dagoela erran digu pilotari gazteak, Euskalen bertan, debutaren atarian.

■ Igandean duzu debuta; urduri?

Oraindik ez; ez dut askorik pentsatu horretan. Jokatzeko gogoia, bai, badut, asko gainera. Hala eta guztiz ere, ez nuen espero debuta hain goiz eginen nuenik; sobera gaztea naiz oraindik.

■ Ezustea izan da, orduan?

Bai. Enpresak erabaki zuen jadanik jokatzeko hasteko ordua zela. Eta nik uste dut prest nagoela.

■ Erantzukizunaren zama sentitzen duzu?

Ez dakit. Badakit herritik jende asko etorriko dela debuta ikustera eta partida ona egin nahi dut.

■ Sanferminetako torneoan eginen duzu debuta; izen handiko txapelketa batean, alegia.

Bai. Egun polita izanen da, gainera, San Fermin eguna. Ni ongi nago eta jokatu besterik ez dut egin nahi.

■ Nola hasi zinen erremontearen munduan?

Duela lau zapabost urte hasi nintzen, herrian bertan. Eskola jarri zuten eta hantxe eman nuen izena. Herriko gazte pila hasi ginen pilotan, han jarraitu eta orain hemen nabil, Euskal Jai Berrin, astean hirutan entrenatzen.

■ Pilota gustuko zenuen lehenagotik, orduan?

Bai, txikitatik. Familian zaletasun handia izan da beti, eta beti gertutik jarraitu dut kirol hori. Lau bat urterekin hasi nintzen, herrian. Aitak oso gustuko du pilota eta familian badira pilotari gehiago ere. Ni pilotan eskuz aritzen nintzen hasieran, baina gero utzi nuen eta futboleant hasi nintzen. Erremonte eskolan izena eman ondoren, ordea, futbola utzi eta pilotaren munduan murgildu nintzen erabat.

■ Eskuz hasi eta orain erremontean; aldaketa handia, ezta?

Bai. Nik uste dut erremontea zailagoa dela; zailagoa da kantxan behar den gorputz jarrera hartzea. Azkarrago jokatzeko da, gainera. Zailagoa baina

«Iñaki Lizaso izan nuen irakasle Doneztebeko erremonte eskolan. Harekin hasi nintzen. Koteto Ezkurra ere familiakoa dut, aitaren lehengusu baita.

Erremontearen eragina hainbat aldetatik iritsi zait, beraz»

politagoa ere bada. Nik erremontea nahiago dut. Eskuz aritzea jada ez zait batere gustatzen!

■ Donezteben baduzu nori begiratu erremontearen esparruan: Ezkurra, Lizaso...

Bai. Txapeldun handiak dira, eta izan dute eragina nigan, noski. Iñaki Lizaso izan nuen irakasle Doneztebeko erremonte eskolan. Harekin hasi nintzen. Koteto Ezkurra ere

familiakoa dut, aitaren lehengusu baita. Beraz, erremontearen eragina hainbat aldetatik iritsi zait.

■ Horrelako pilotariak inguruan izatea motibatzen du moduko da ala erantzukizun handia da?

Niretzat, motibazio onena dira.

■ Ez zara konparazioen beldur?

Ez. Hala ere, nik haien parekoa izan nahiko nuke, ahal bada.

■ Txapeldun handia izatea duzu, beraz, helburu?

Gutxienez partida estelarreran aritu nahi nuke. Hala ere, badakit bidea luzea eta zaila izanen dela, pixkanaka-pixkanaka egin behar dudala aurrera.

■ Kirol gogorra da?

Bai. Egunero egin behar da lan, entrenatu, bestela ezinezkoa baita aurrera egitea. Kantxan aritu eta kantxatik kanpo ere egin behar da lan. Nik denbora gutxi daramat, pare bat hilabete fisikoa lantzen. Indarra hartzeko da, baina kantxan ongi ez bazabiltza, indarrak ez du deustarako balio.

■ Aurrelaria zara zu; zeintzuk dira, zure ustez, zure ezaugarri nagusiak?

Zaila da erratea. Nik uste dut asko arriskatzen duen jokalaria bat naizela. Ez dakit hori apustuak egiten dituztenentzat ezaugarri ona edo txarra izanen den, baina halakoa naiz. Ez dut, agian, kolpe handirik, oraindik; niri jokaldiak egitea gustatzen zait, kolpea baino gehiago.

■ Hamazazpi urterekin zaila da hainbat gau-



soslai

Pilotan hasi zen, gero futboleant aritu zen eta pilotaren munduan murgilduta dago berriz Xanti Uterga hamazazpi urteko Doneztebeko gaztea —abuztuan beteko ditu 18—. Bata dela edo bestea dela, kirola izan du Utergak zaletasun nagusi beti.

Erremontean aritzeaz gain, ikasten jarraitzen du Doneztebeko gazteak. Basozain izateko ari da ikasten, Iruñean. Oporrak, hala ere, herrian emanen ditu, Donezteben. Iruñera entrenatzera etortzen da astean hirutan.

Igandeko partidari Jon Juaristi gipuzkoarra izanen du aurkari Utergak kantxaren aurreko aldean. Hark ere debuta eginen du San Fermin eguneko jaialdian.

za bazter batera utzi behar izatea?

Nahiko zaila, bai. Orain, adibidez, herriko bestak dira eta ezin izan dut batere parrandarik egin. Hala ere, nik argi dut erremontea gustuko dudala

eta ahal bada nire lanbidetzat hartu nahi dudala. Beraz, badakit hainbat gauza bazter utzi beharko ditudala kantxan ongi aritzeko.

→ Edurne Elizondo

